

'Kilkerren soka' ekimenaren bigarren fasea gaur hasiko da Andoainen

Literaturaren eremuan irakurleak duen presentzia azpimarratu eta areagotu nahi duen 111 Akademiak iazko urrian jarri zuen abian 'Kilkerren soka' egitasmoa. Liburu aurkezpenak ardatz hartuta, urteko sorkuntza ezagutzera eman eta idazleei beraien lana irakurleekin partekatzeke aukera eskaintzea da helburuaren xedea. Aurreneko fasea burututa, bigarrenari ekiteko prest dago, eta gaur bertan abiatuko da, Andoainen, Ur Apalategi eta Iban Zaldua idazleen eskutik. Apalategik hain zuzen 'Fikzioaren izterrak' narrazio bilduma aurkeztuko du udal liburutegian arratsaldeko 19.00etan, eta zeregin horretan Iban Zaldua izango du bidelagun.

Egitasmoaren bigarren fase honetan ere beste sei liburu aurkezpen antolatu dira, Euskal Herriko sei herri ezberdinetan burutuko direnak. Saio horietan liburua aurkeztuko duen idazleak bidaide bat izango du alboan; honek liburua aurkeztuko du, irakurle gisa liburuaren balorazio bat eginez, eta zubi lana burutuko du idazlearen eta bertaratzen diren irakurleen artean. Gipuzkoan gauzatuko diren saioei dagokienez, martxoaren 15ean Jokin Ansorena Azkoitin izango da, Xabier Mendiguren Elizegi bidaide duela, eta martxoaren 22an jaioterrian egongo da Jon Benito poeta. Haren ondoan, berriz, Gari Berasaluze.

EGITARAUA

Otsailaren 23an: 'Fikzioaren izterrak', Ur Apalategi. Andoaingo udal liburutegian, 19.30ean.

Martxoaren 15ean: 'Ordu bietan frontoian'. Jokin Ansorena. Azkoitiko Elkarguneko erakustokian, 19.00etan.

Martxoaren 22an: 'Bulkada', Jon Benito. Azken Portuko Kristau Biltoki zaharrean.